

Euskal Herriko inprentaren historia

Jose Antonio Arana Martija
Euskaltzain osoa

Gutenbergek inprenta asmatu eta berrogei urtera Pabe ingurutik etorri zen Iruñera Brocar, Euskal Herriko lehen inprimatzailea, 1489an elizarako *Manuale* bat inprimatu zuena. Beste inkunabile batzuk ere inprimatu zituen Iruñean Brocar-ek, Cisneros kardinalak deituta Migel Egia suhiarekin Alcalan *Biblia Poliglota* inprimatu arte. Egiak Lizarran sortu zuen bigarren inprenta 1546 urtean, non Anvers-ek jarraitu zuen, hirugarren inprimatzailea izan zelarik. Bilbon 1578an sortu zuen lehendabiziko inprenta Marés-ek. Donostian Borgoñak jarri omen zuen lehendabizikoa 1586an. Hurrengo XVII. mendean sortu ziren Iratxe eta Fiteroko monasterioetakoak. Euskal Herriko gainontzeko hiriburuei dagokionetik, Merlet-ek sortu zuen moldiztegia Baionan 1608an eta azkenik Gasteizen Riesgok 1722an.

Forty years after the invention of the printing press by Gutenberg, Brocar, the first printer of the Basque Country moved from Pau to Iruñea and in 1489 printed the *Manuale*, a religious book. Also in Iruñea, and following the requirements of Cardinal Cisneros, other several incunabula were printed by Brocar who together with Miguel Egia, his son-in-law, printed in Alcalá the *Biblia Poliglota*. In 1546 the second Basque printing press was built in Lizarra by Egia who was later succeeded by Anvers, the third Basque printer. In Bilbo the first printing press was built by Marés in 1578 whereas in Donostia the first press was probably constructed by Borgoña in 1586. In the next century were created the presses of the monasteries of Iratxe and Fitero. In respect to other Basque capitals, Merlet built the first printing press of Baiona in 1608 and, finally, Riesgo in 1722 the first one in Gasteiz.

Ez genion behar den besteko goraipamenik egin Euskal Herrian inprentari, 1489an sortu zenetik bostehun urte bete zirenean. Berandu izan arren, inoiz ezer ez egitea baino hobe omen da zerbait ospatzea, eta Udako Euskal Unibertsitate honen aurtengo hasiera-egunean¹, kultura eta zibilizazioaren –ez baitira gauza berdinak– euskarria den liburuari omenaldia zor diogu. Aurreko bost lerroetan esandakoaz xehetasunak egin beharrean aurkitzen naiz. Lehendabizikoa, Nafarroan sortutako inprentari zuzendu ziola Eusko Ikaskuntzak liburuxka bat X. Biltzarrean (1987), hemengo inprentaren lehen berrehun urteak aztertuz, eta José Antonio Mosquera jaunak ere, Brocar lehen inprimatzaileak kaleratutako inkunableak zehazki aipatuz, Iruñeko inprentari egin ziola omenaldia (ikus bibliografia).

Bigarren irazkina *inprenta* hitz-maileguari dagokiona da. Nabari da gaztelaniatik hartutako mailegua dela, *inprimeria* erabiltzen denean frantsetik hartutakoa den bezala. *Moldiztegi* hitza asmatu zuen Manuel Larramendik 1745ean *Diccionario Trilingüe* delakoan, gero maiz erabilia, *moldizkira* eta *moldizkiratu* ere erabiliak izan direlarik. *Liburugile* eta *irarkola* ere mende honetan erabilitako hitzak dira, nahiz eta azken honek jarraipenik ez izan. Azkuek, XIX. mendeko azken urteetan egin zituen argitalpenetan, *moldegintza* eta *moldegintza* hitzak erabili zituen, baina hamar/hamabost urte geroago eman zigun *Hiztegia*-ren bigarren liburukian (1906) ez digu Larramendik asmatutako hitza ez eta berak erabilitakoa

ematen. Izatez, argi ikusi zuen *molde* erdal hitzaren eratorria zela biok erabili zutena, eta *inprenta* bezain erdal kutsukoak zirela. Gogora dezagun, ostera, Leizarraga eta Axularren liburuak *imprimaçaile* izenekoek kaleratu zituztela. Beraz, maileguzko hitza hartzerakoan, *inprimategi* eta *inprenta* hitzak har ditzakegu bekatu larririk egin gabe.

Beste argibide bat ere eman behar dizuet: liburuaren eta inprentaren historiak ezin dira parekatu. Inprenta XV. mendearen erdialdean sortu baino lehen, bazeuden eskuizkribuzko liburuak. Iruñean gaudenez, hemengo liburu berezi batzuk aipatuko ditut. Orreaga eta Iruñeko *Ebangelarioak*, XI. mendekoak, ezin ditugu ahaztu. Eskuizkribuzko beste hiru liburu eder eta ospetsu ere goraipatu behar dira, munduan zehar ezagutuak: Robert Ketton ingelesak, Iruñeko katedralean arzedianoa zelarik, arabieratik latinera lehendabizi itzuli zuen *Korana* 1143an: Tuterako Benjaminek idatzitako *Itinerarium*, gero nork eta Antwerpeko (ala *Anberesko*?) Christoforus Plantinus, Europako inprimatzailearik hoberenak 1575ean argitaratua; eta *Biblia Pampilonensis*, Nafarroako Antso Azkarra erregeak aginduta, 1194-1197 urteetan Funesko Petrik eskuz idatzia eta ilustratua, Yaleko Unibertsitateak 1970ean faksimilez argitaratua.

Eskuizkribuzko liburuaren lehenaldi honetan, pergamua zen idazkiaren euskarria. Paperean idatziko ziren hurrengoak. Nafarroako Artxibo Orokorrean gordetzen den dokumentu batean azaltzen zaigu XIII. mendean

1. 1994-VII-18an UEUko Iruñeko Ikastaroen aurkezpen ekitaldian irakurri zen sarrera-hitzaldiari dagokion testua da artikuluko honetakoa.

papera ezaguna zela lurralde honetan. Beraz, berrehun urte geroago inprentak behar izango duen euskarri hau ezaguna da Iruñean. Bostehun urte iraungo dute paperak eta inprentak gure garaia heldu arte. Baina Zibernetikaren bidetik (1948) zabaltzen ari den informatika munduak, zalan-tzak jartzen dizkie zientzia giza-banakoei liburuaren iraupenaz. Aurtengo uztailaren 5ean bildu ziren Bartzelonan munduko hainbat argitaldari, eta informatikaren aurrean liburuak izango duen arriskua aztertu zuten. Pantaila batean ikus daiteke edozein testu, irudi edo ilustrazio, CD-ROM edo disko optikoaren bidez. Baina Inge Feltrinelli italiarrak esan zuenez, pentsa ere ezin daitekeen gauza da *hondartzan ordenagailuaren pantailan Passoliniren olerki bat irakurtzea*. Bostehun urtetan irabazi dugun ohitura, hots, papera ukitzea, liburuaren edertasuna –ondo eginda dagoenean– gozatzea, papera eta tinta usaintzea, eta abar, ezin da pantaila hotzaren emaitzaz trukatu. Artisauen inprimaketa dotoreak eta koadernaketa ikusgarri eta ukigarriak, edukinaz aparte, ezin daitezke pantaila baten emaitzarekin konparatu. Edertasun eta gozamen hori mantentzearen, zenbait liburu zaharren faksimilak egiten direnean, paper-mota eta usaina ere birsortzen dute oraingo argitaldaries. Teknikari eta zientziari dagozkien ikerketa eta txostenak disketetan emango zaizkigu; baina kultura arloko gaiak liburuetan jasotzen jarraituko dugu.

Gaizki ikasi dugun historian Constantinoplako batailarekin hasi omen zen Aro Modernoa 1453an. Ikuspuntu politikoa, edo hobe esanda, militarra eman zaigu beti historiaren irakaskuntzan. Kulturaren historiari begirada emanez gero, inprentaren

iraultzarekin hasi zen Aro Moderno hori 1450 urtearen inguruan. Hitzak osotzeko zurezko letra mugikorrak egin zirenean sortu zen inprenta. Lorenzo Coster holandarra (ala *olandresa?*) izan omen zen inprentaren asmatzailea 1440 urtearen inguruan, baina ez da honek inprimatutako libururik ezagutzen. Asmatzaie honen ikasle eta langile izandako Johann Fust (edo Fastus) Magunziara joan zen, letra tipoak Costereri lapurtu ondoren eta Johannes Gutenberg alemanari saldu omen zizkion. Metalezko letrak urtzea lortu zuen Gutembergek eta inprimatzeko tinkagailua. *Biblia Sacra Germana* inprimatu zuen 1450ean, ezagutzen den lehen liburu inprimatua: egindako 150 aletik 16 baizik ez dira gordetzen. Inkunableen historia (Alemaniako sehaskatik ateratako liburuena, hain zuzen) hasten da urte horretan, eta 1500.ean bukatzen da, urte hau barne. Letra gotikoaz inprimatuak dira inkunable guztiak. Aldo Manuzio veneziarrak asmatu zuen italika edo kurtsiba letra-tipoa eta 1501ean inprimatu zituen tipo honekin lehen liburuak.

Laster sakabanatu ziren Gutembergen ikasleak Alemanian zehar: 1462an Estrasburgo, Bamberg, Kolonia eta Basilean zeuden. Azken hiri honetatik dator Frantziako Tolosara Henricus Turner eta honekin ofizioa ikasi ondoren datorkigu Iruñera Pabe inguruan zegoen Le Brocq hirixkatik Arnald Guillen izeneko inprimatzailea, hemen Brocar izenarekin ezagutua. Albret-eko Juan eta Foix-ko Katalina 1484an ezkondu ziren eta hauen eraginez etorri zela Brocar Iruñera diote. Baina ene ustez zabalagoak dira kulturaren bideak. Done Jakue-ren bidetik sartu ziren Euskal Herrian gotikoko hargin eta

nolabaiteko arkitektoak, elizetako organugileak, edozein motako artisauek eta, nola ez, inprimatzaileak, Brocar ez baitzen izan etorritako bakarra. Baina lehena izan zenez, honek merezi du gure lehen aipamena. Euskal Herrian lehendabizi argitaraturiko liburua Iruñean inprimatu zuen Brocar-ek 1489. urtearen azken egunetan: *Manuale secundum consuetudinem Ecclesie Pampilonensis*. Geroztik, eta 1501 urterarte 23 inkunable inprimatu zituen Iruñean, eta beste sei liburuxka eta buldak. Inkunableen artean aipagarria da Brocar-ek argitaratu zuen musikazko lehen liburua, *Missale mixtum pampilonense* (1494). Beste Basileako Fadrike izeneko batek inprimatu zuen Burgosen, 1511an, Gonzalo Martinez de Bizkargi azkoitiarraren *Arte de Canto llano*. Baina 1501ean Brocar-ek utzi zuen Iruñeko inprimategia eta Logroñon jarri zuen beste bat, non 1517rarte 50 liburu kaleratu zituzten berak edo familiakoek. Maria Zozaia-ekin ezkondu zen Arnald Guillen Brocar eta hiru seme-alaba izan zituen: Juan, Pedro eta Maria. Lehenak Logroñon jarraitzen zuen bitartean, Mariarekin 1518an ezkondu zen Migel Egiak ikaslearekin Alcalá de Henaresera jo zuen, Cisneros kardinalak deituta. Han inprimatu zuten aitagarreba eta suhiak *Biblia Poliglota* famatua 1514-1517 urteen bitartean. Brocar 1523an hil zen.

Arnald Guillen Brocar Iruñetik 1501ean joan zenetik, hutsune nabaria agertzen zaigu 1543rarte. Bulda batzuk argitaratu ziren urte honetan, baina ez dakigu nork inprimatuak. Aipatu Migel Egiak 1546an Lizarran inprimategia jarri arte, ez daukagu inprentarik Euskal Herrian. Horregatik, behar bada, euskarazko lehen liburua, Bernat Etxepareren *Linguae Vasco-*

num Primitiae Bordelen inprimatzen du 1545ean Morpain inprimatzaileak. Migel Egiak, Euskal Herriko bigarren inprimatzaile ezagutuak eta euskaldunak, denbora gutxi iraun zuen Lizarrako inprentarekin 1546.eko urrian hil baitzen. Aitagarreba hil zitzaionean (1523) haren inprimategiarekin jarraitu zuen Alcalán 1537rarte, 100 liburutik gora inprimatuz, tartean Erasmoren bat Inkisizioak erre ziona. Toledon eta Valladoliden ere izan zituen bi inprimategi (1524-1527) Brocar-ek gurutzadako Buldak inprimatzeko zeukan monopolioarekin jarraituz. Logroñon ere izan zuen inprimategi bat 1528-1533 bitartean, 20 liburu kaleratuz, tartean Marco Poloren bidaiena.

Aurrera jarraitu orduko esan dezagun 269 inkunable gordetzen direla Iruñeko biblioteca eta liburutegietan, altxor eta ondare benetan aberatsa hiri bati baitagokio. Hala daude banatuta:

1. Katedraleko bibliotekan 123.
2. Nafarroako Biblioteca Orokorrean 73.
3. Nafarroako Opus-en Bibliotekan 57.
4. Seminarioko liburutegian 7.
5. Liburutegi pribatuetan 5.
6. Kaputxinoen liburutegian 3.
7. Apezpikuaren liburutegian 1.

Adrián de Anvers (edo *Anberes*) dugu Nafarroako eta Euskal Herriko hirugarren inprimatzaile ezagutua. Anbereseko honen jaioterrian Plantinus inprimatzaile famatua 1550ean lanean hasi baino lau urte lehenago, 1546an jaso zuen Adriánek Egiak maisuaren eskutik, honek, hil zenean, utzi zion inprimategia, hogeitertan zehar, 1568rarte Lizarran 40 liburu edo

inprimatuz. Anberes da Euskal Herrian inprimatu zen euskarazko lehen liburuaren egilea: Elsoko Santxoren *Doctrina christiana*. Tamalez ez da liburu honen ale bat ere ezagutzen. Etxepare eta Leizarragaren liburuen tartean euskarazko bigarren liburua izango litzatekeena, 1561ean argitaratu baitzen, Trentoko Kontzilioak 1563an Katekimari buruzko arauak eman baino bi urte lehenago. Anberesek Iruñera eraman zuen bere inprenta 1568an. Hasiak ziren ordurako inprimatzaileak latinezkoetatik aparte hizkuntza nazionaletan liburuak argitaratzen, eta Anberes ere gaztelaniaz liburuak ateratzen hasia zen. Baina hara hemen datu bitxia: Gaztelerrian erromantzezko liburuak saltzeko baimena eskatzen du, Nafarroako herririk gehienak euskaldunak zirenez, gaztelaniazko liburuak hemen ezin zituelako saldu. Elsoren dotrinatik aparte, euskarazko liburu gehiago kaleratu ote zituen Anberesko Adriánek? Egia esan, Saboiatik etorritako Tomás Porrallis, Euskal Herriko laugarren inprimatzaileak, Iruñean 1569an bere inprimategia jarri arte, Anberes izan zen inprimatzaile bakarra. Baina Nafarroako erregeen gortea, Espainiako erregeek Iruñetik bota zutenetik, Paben zegoen eta ezin zioten lanik eman hemengo inprimatzaileei. Angulemako Margarita, Nafarroako erreginak, *Heptameron* liburua Parisen argitaratu zuen 1558an. Eta Albretoko Joanna erreginak (1528-1572) Joannes Leizarragari agindu zion *Testamentu berria*-ren itzulpena (1571), ezagutzen dugun euskarazko bigarren liburua, Larrotxelan argitaratu zuen Pierre Hautin *inprimaçailleak*. Baina kasu honetan ez zeuden arazo politikoak bakarrik: kalbinisten Sinodoa antolatu zuen Joanna erreginak 1563an, Trentoko Kontzilioa bukatu zen urte

berean, eta protestante hauen bilgunerik handiena Larrotxelan zegoenez, hemen inprimatzen ziren, inongo zentsuratzailerik gabe, edo erraztasun handiekin, erlijio katolikoarekiko iraultzaile hauen liburuak. Dena den, esan beharra dago Nafarroak inprentarekiko lege propioak zituela, 1806 urterarte indarrean iraun zutenak. Espainiako Erregeek, nolabait Katolikoak deituak, 1502an emandako pragmatika batean, ez zuten inprentaren legea indarrean jarri Euskal Herrian, eta Felipe II.ak ere indarrean jarritako beste pragmatika batean, atzerritik liburuak ekartzeko baimenak arautzen zituenean, Nafarroari atzerriko tratamendua ematen zion. Gerroago, 1569an eliz liburuak atzerriartzeko arauetan, Nafarroa atzerri gisa agertzen da.

Tomás Porrallis aipatu dugu, Euskal Herriko laugarren inprimatzailea. Iruñean bere inprimategia 1569an zabaldu zuenean han zegoen Anbereseko Adrian. Biak ziren Euskal Herrian zeuden inprimatzaile bakarrak. Porrallisek beste inprimategi bat zabaldu zuen Tuteran 1572an. Tuteran izan zen bada Euskal Herrian inprenta izan zuen hirugarren hiria, Iruñea eta Lizarraren ondoren. Pedro Porrallisek jarraitu zuen Iruñean aitaren inprimategian, eta Tomás hil ondoren ez dugu Tuteran inprentarik aurkitzen 1813an Pedro Contik berea jarri arte.

Bilbo da Euskal Herrian inprenta izango duen laugarren hiria. Merkatarien hiria zen Bilbo, portuan beste gauza askoren artean liburuak ere mugitzen zituen. Iruñeak, oster, erregeen gortearen inguruan, kultura askoz ere gehiago zaindu eta bultzatu zuen. Dena den, batzuek diotenez, 1552an Juan Lorza izeneko batek inprenta zeukan Bilbon; baina ez da

data sinesgarria, Juan Elorza agertzen baitzaigu 120 urte geroago dokumentatua. Baina inprimategi baten beharra sumatzen omen zen. Iruñeak ia 10.000 bizilagun bazituen XVI. mendearen erdian, Bilbok ia 8.000 zituen, eta halako hiri batean inprentarik ez egoteak oso arraroa dirudi.

Matías Marés dugu Bilboko lehen inprimatzailea ezberrik gabe. Frantziatik etorritako inprimatzaile ibiltaria izan omen zen Marés, Trentoko Kontzilioa bukatu ondoren bertan gomendatutako errezu-liburuak herririk herri inprimatzen ari zena. Salamancan lau urte bete zituen (1566-1570), unibertsitatearen inguruan bazegoen zer inprimatu eta. Burgosen aurkitzen dugu 1575ean eta handik Bilbora etortzea erabakitzen du. Dirudenez lan ugari burutzen ari zen edo egiteko asmoa zeukan, urte horretan Nantese-tik 30 langile ekarri baitzituen. Bilboko Askao kalean jarri zuen lehendabiziko inprenta 1576an, gero Atxurira eramango zuena eta azkenez San Frantzisko komentuan kokatua izan zena. Marés etorri arte inprimategirik ez zegoenez Bilbon, kanpoko inprimategietan atera ziren honako beharrezko liburuak: *Bizkaiko Fueroa* Juan de Juntak inprimatu zuen Burgosen 1527an; *Ordenanzas del Consulado de Bilbao* Juan de Brocar-ek Alcalan 1552an; *Bizkaiko Fueroa*-ren beste argitalpen bat Francisco del Cantok Medina del Campon 1575 urtean.

Euskal Herriko bosgarren inprimatzailea dugu Matías Marés. Bilbon 12 urtez iraun zuen lanean eta inprimatutako liburuen artean bereiziko nituzke: Huarte de San Juan-en *Examen de Ingenios* (1580), eta Andrés de Poza lizenziatuaren *Hidrografía* (1585) eta *De la antigua lengua de las Españas* (1587) euskarari

buruzko lehenetariko apologia, hain zuzen. Bilbotik Logroñora joan zen Marés 1588an, Iruñetik Brocar joan zen bezala. Zaragozara joan zen gero (1592) Diego Marés semea Logroñoiko inprimategiaren arduradun utzirik, zeinen alargunak Urantzian (Los Arcos) jarri zuen beste inprimategi bat. Inprimatzaile ibiltaria zela Matías Marés esan dugu. Eta hau baieztatze-ko hor dugu Zaragozan bi urte egin ondoren non datorren Santo Domingo de la Calzadara 1594an, Iruñera 1596an eta Iratxeko monastegira 1607an. Marés dugu, beraz, Bilbo eta Iratxeko lehen inprimatzailea eta Iruñeko laugarrena, Brocar, Porrallis Tomás eta Pedoren ondoren.

Marés Bilbotik joan zenean, Pedro Cole de Ibarra izan zen bigarren inprimatzailea. Mañarikuak dioskunez, *Bilboko Ordenantzak* argitaratu zituen 1593an. Inprimatzaile honek kaleratu zuen 1596an Betolazaren *Doctrina Christiana*, euskaraz eta gartzelaniaz.

XVI. mendearen azken urteetan (1586) sortu omen zuen inprenta Donostian Pedro de Borgoñak. Inprimatzaile gisa auzi baten bidez da ezagutua: Porrallis zen Iruñean zegoen bakarra eta Borgoñak bigarren inprimategia jartzeko baimena eskatu zuenez, auzitara eraman zuen iruñearrak. Euskarazko *Debocionario* bat argitaratu omen zuen Borgoñak.

Inprenta nola hedatu zen Euskal Herrian XVI. mendean ikusi dugu. Baina mende horretan inprimatzaile euskaldunak herritik at egindako lanen (batzuk aipatu ditugu, Brocar-enak, esate baterako) eta kanpoko inprimatzaileek egindakoen berri eman behar dugu. Salamancan Leonard Hutz inprimatzailearekin lan egin zuen Lope Sanz nafarrak 1496 urtearen inguruan,

8 inkunabile argitaratzeko laguntza eman ziolarik. Aipagarria da, bestalde, Mexikon 1539an jarri zen lehen inprenta Fray Juan de Zumarragak sortu zuela, urte horretan *Doctrina Christiana en lengua mexicana y castellana* inprimatuz. Esana da 1545ean agertu zela Bordelen Etxeparereren *Linguae Vasconum Primitiae*, Morpain inprimatzailearen etxean, eta Larrotxelan, 1571an Leizarragaren *Testamentu berria* Hautinen inprimategian. Urte berean, Anbereseko Christoforus Plantinus inprimatzaile famatuak kaleratu zuen Esteban de Garibay-ren *Los cuarenta libros del Compendio Historial*, liburu oso arraroa eta estimatua, eta beronen inprimategitik atera zen 1597an Vulcanius-en *De literis et lingua getarum sive Gothorum*, non agertzen den *Parergon sive specimen cantabricae hoc est veteris Vasconum linguae*. Orduan ere argitaldariak eta inprimatzaileak bereizten ziren, argitaldari batek aginduta *ex officina plantiniana* atera baitzen liburu hau. Inprenten lanekin zerikusirik zeukan zentsura sortua zen, Inkisizio edo/eta Erromako *Santo Officio*-k eraginda. Galerazita zeuden liburuen lehen Katalogoa 1551ean argitaratu zen. Hurrengo mendean askoz ere ugaria- goak dira euskal liburuak argitaratzen dituzten inprimatzaileak, ikusiko dugunez.

Baina berriz Euskal Herrira itzulita, hauxe esan dezagun: XVII. mendearen atarian bi inprimatzaile baizik ez zeudela: Matías Marés Iruñean eta Cole Ibarra Bilbon. Laster hasiko dira inprentak ugaltzen. Iruñean eta Bilbon zeudenez gehienak (Baionan ere sortzen da mendearen hasieran) aipatu bi hiriekin jarraituko dugu adierazpen honetan. Matías Marésekin Iruñea uzten duenean Iratxeko

monastegira joateko 1606an bi inprimatzaile hasten dira batera lanean: Asiain, 1620rarte jarraituko duena eta Carlos Labayen, hamabi urte gehiago iraungo duena. Aipatu 1620 urtean hiru inprimatzaile zeuden: Asiain, Labayen eta Oteiza eta 1630 urtean lehendik zetozen Carlos Labayen eta Oteiza eta hirugarren berri bat: Martín Labayen. Carlos Labayenek eta Juan Oteizak elkarturik argitaratu zuten 1624ean *Catechismus ex Decreto Sacrosanti Concilii Tridentini*. Ildo honetatik, Carlos Labayenek argitaratu zituen euskarazko bi liburu: *Tratado de cómo se ha de oír misa en romance y bascuence* (1621) eta *Doctrina Christiana en castellano y bascuence* (1626) gaur egun bakanak diren Juan de Beriainen liburuak. Nafarroan XVII. mendean egon zen inprimatzailearik garrantzitsuena izan zen Carlos Labayen.

Carlos Labayen hil zenean, alar-gunak eta Martín semeak eta Isabel alabak ere inprimategiak izan zituzten Iruñean. Diego Zabala inprimatzailearekin ezkondu zen Isabel lehendabizi, Martín Gregorio de Zabala semeak Martín Labayen osabarekin lan egin zuelarik. Martínek eta Diego Zabala koinatuak bi liburu baliotsu argitaratu zituzten: *Quaderno de las leyes y ordenanzas* (1646) eta *Leyes de Navarra*. Diego Zabala hil zenean berriz ezkondu zen Isabel Labayen Gaspar Martínez inprimatzailearekin. Beraz, Labayen/Zabala/Martínez inprimatzaileek familia osotzen zuten eta ia XVII. mendea betetzen dute beren inprentekin. Juan Antonio Berdun inprimatzaile dugu hor, Martín Labayenen garaian. Mendea bukatze-ko hor ditugu Domingo de Berdala, Juan Micon eta Francisco Antonio de Neyra.

Bilbora bagatuz, Pedro Cole de Ibarra da XVII. mendearen hasieran dagoen inprimatzaile bakarra eta hala jarraitzen du 1615 urtearen inguruan Juan Azpiroz lanean hasi arte. Honen inprimategiari zor diogu Kapanagaren *Exposición de la Doctrina Cristiana en castellano y bascuence* (1616). Pedro de Huidobro Burgosetik etorri zitzaigun eta 1643an argitaratu zuen Bilbon *Bizkaiko Fueroa*-ren hirugarren argitalpena, Bilbon egiten zen lehena, aurrekoak Burgosen (1528) eta Medina del Campon (1575) kaleratu baitziren. Martín Morovelliren liburu bat baizik ez da ezagutzen, Juan de Elorzarekin gertatzen den bezala. Roque Rico de Miranda Madrileko inprimatzailea zen, baina 1669 urtean Bilbon inprimatu zituen bi liburu: *Ordenanzas de la Noble Villa de Bilbao* eta *Ordenanzas de la Casa de Contratación de Bilbao*. Bilboko ordenantzen liburua, dirudinez, laster agortu zen eta 1673an beste edizio bat paratu zuen Nicolás Sedano inprimatzaileak. Baina argitalpen hau oso txarra omen zen. Hauxe adierazten digu testu honek:

La imprenta de Sedano estaba exhausta de letras y por lo gastado y consumido en ellas no estampan ni señalan sus caracteres con la formalidad y claridad que es necesario para la verdadera inteligencia.

Beraz, Madrileko Francisco Llorenteri agindu zioten udalekoek argitalpen taiuzko berria egin zezala. José Gutierrez de Baraonak inprimatuko ditu berriz ordenantza horiek 1691an.

Baionako inprimategien historia 1608an hasten da Jean Merlet inprimatzailearekin. Francisque Michel-ek diosku 1540an Fauvetek izan zuela

inprenta Baionan, 1616an euskal dotrina bat atera zela *en basque laburdin* eta 1630ean Etxeberriren noelak eta kantika espiritualak. Baina Julien Vinsonek frogatzen du Baionako inprentarekiko datu hauek gezurrezkoak direla, bi liburu horiek ez baitira inon agertzen. Izatez Estebe Materre frantziskotarraren *Doctrina Christiana* Bordelen argitaratu zuen 1617an Pierre de la Court-ek, eta *bigarren inpressionea*, bertan Bordelen Jacques Millanges-ek 1623an. Azken honek inprimategia Bordelen zeukan, baina 1620 urtetik aurrera Baionan jarri zuen liburudenda, eta hemendik sor daitezke errakuntzak. Ziburuko Joannes Etxeberriri dagokionetik, *Noelac eta berce canta espiritual berriac* Bordelen inprimatu zituen 1630ean Guillaume Millanges-ek, eta beronek egin zuen bigarren agertaldia 1645ean. Hirugarren argitalpena bai Baionakoa da, *Maffre Baitan* 1699an egina. Hemen dugu *inprenta* edo antzerako hitza erabili gabe, ideia bera adierazteko era, Iparraldean erabilia.

Baina Ziburuko Etxeberri aipatu dugunez, esan dezagun beste bi liburu argitaratu zituela Bordelen, biak Guillaume Millanges-en inprimategian: *Manual devocionezcoa*, 1627an, zeinen bigarren argitalpena Millangesek berak egin zuen 1669an, eta *Eliçara erabilteko liburua*, 1636an, honen bigarren argitalpena ere Millanges-ek egin zuelarik 1665ean. Hurrengo urtean, 1666an, Pabeko Desbarats inprimatzaileak egin zuen beste argitalpen bat.

Ez dut uste Merlet, Baionako lehen inprimatzaileak, euskarazko libururik argitaratu zuenik. Baionan argitaratutako lehena, beharbada, François Bourdot inprimatzaileak kaleratu zuen Voltaire-ren *Tresora hirour lenguaieta*-

qua, francesca, spagnola eta hasqua- (1642) izan daiteke. Lyonen argitaratu zen lehendabizi liburu hau 1620an frantsesezko testuarekin eta izenburu oso desberdinarekin, eta gero, frantsesezko beste itzulpen bat argitaratu zuen Baionan Antoine Fauvetek 1684an. Materreren liburua Bordelen atera zuen Pierre de la Court inprimatzaileak, beste frantziskotar baten liburu bat inprimatu zuen ia hogeit hamar urte geroago: Joanes Harambouren *De bocino escuarra, miraila eta oracionetegua* (1635). Ezaguna dugun Bordeleko Guillaume Millanges-ek Pierre d'Argainarats, Ziburuko bikarioaren liburu hau inprimatu zuen 1641ean: *Avisu eta exortatione probetchosac becatorearentzat*. Baina idazle honen bigarren liburua, *Devoten breviariora*, Bernard Bosc-ek inprimatu zuen Baionan 1665ean.

Tartean dugu Pierre Axularren *Guero, bi partetan partitua eta berecia*, zeinen lehen edizioa Guillaume Millanges-ek kaleratu zuen Bordelen 1643an. Bigarren edizioa Millanges berak atera zuen Bordelen, data gabe, titulua aldatuz: *Guero guero*, Pierre Axular 1644an hil ondoren. Hirugarren argitalpena da Baionan 1864an Lamaignère inprimatzaileak atera zuena.

Joannes d'Olcek ere Bordelera jo zuen, Pierre de la Court-engana *Pregarioac Bayonaco Diocesacotz* 1651n argitara zezan. Liburu hau gero Bonaparte Printzeak berriz inprimatu zuen 1866an Lamignère-ren alargunaren inprimategian. Baina errataz josita zegoenez, bigarren argitalpen bat egin zuen Londresen, urte berean, Strangeways and Waldenen inprentan. Olce apezpikuak beste liburu bat argitaratu zuen, oraingoan Baionan, 1666an, Stephanus Bertier-en inpri-

mategian: *Statuta Synodalia*.

Baionan dugun inprimatzaile familiarik iraunkorrena, Antoine Fauvetekin 1667an sortzen dena da eta XVIII. mendean ere jarraitzen duena. Aipatu Bertier-en koinatua zen Antoine Fauvet eta aipatu urtean *imprimeur de la ville* izendatua izan zen, liburu hau inprimatu zuelarik: Martin Hoyarzabalek frantsesez eman zituen bi argitalpen, lehena Rouenen (1632) eta bigarrena Bordelen (1633). Pedro Etxeberrik euskarara itzuli zuen eta hau da Fauvetek inprimatu zuena: *Liburu hau da ixasoco nabigacione-coa*. Laugarren edizioa ere berak eman zigun 1672an. Antoine Fauvet honi dagokio Kempisen *De imitatione Christi* liburuaren euskarazko lehen itzulpena argitaratzearen ohorea, 1684an kaleratu baitzuen Arambillagaren *Jesu Christoren imitationea*. Antoine Fauvet 1700.ean hil zenean, Paul Fauvet semeak lortu zuen hiriaren inprimatzaile ofiziala izateko izendapena. XVIII. mendean hasieran, 1701ean, Baionako bizilagunen errolda egin zen. Inprentarekiko datuak hauek dira: inprimatzaile bakar bat zegoen, Paul Fauvet; bi liburu-saltzaile, Jean Maffre eta Pierre Dusarrat; grabatzaile bat, Hugues Caron.

Erljioko testuak dira Iparraldean argitaratzen diren gehienak XVII. mendean, eta Baionan dozena-erdi inprimatzen badira ere, Bordeleko inprimatzaileek dute lehentasuna. Azken adibidea jartzearen, Christobal Harizmendiren *Ama Virginaren Officioa* 1658an inprimatzen du De la Courtek eta 1660an bigarren argitalpena titulua pixka bat aldatuz: *Ama Virginaren hirur officioak*. Parisen argitaratu ziren Silvain Pouvreau-ren hiru liburu hauek: *Giristinoaren dotrina* (1656), *Philotea* (1664) eta *Gudu*

espirituala (1665). Arnaud Oihenarten bi liburu hauek ere Parisen ikusten dute argia: *Notitia utriusque Vasconiae* (1638) eta *Les proverbes basques* (1657). Euskal Herritik hurbilago, Paben, argitaratu ziren honako hauek: Bernard Gazteluzarren *Eguia catolicac* (1686) eta Athanase Belapeyreren *Catechima laburra* (1696). Azkenik aipa dezagun zubere-rako lehen liburua, Juan Tartasen *Onsa hilceco bidia*, Orthesen 1666an argitaratua.

Hegoaldera berriz bagatoz, Donostian ahaztuta zegoen 1667an ia ehun urte lehenago egon zen Borgoña inprimatzailea. Aipatu urtean, Martín Huartek Probintziako aginteei honako hau adierazten die: Amsterdam-etik ekarri dituela letra eta kaja berriak, eta baimena eskatzen duela inprimategia zabaltzeko. Eman zioten baimena eta argitaratu zuen lehen liburua izan zen *Quaderno de Leyes de Alava*, eta beste bederatzi, 1677an hil zelarik. Pedro eta Bernardo Huarte, semeak, Frantzian ofizioa ikasten ari ziren bitartean, alargunak jarraitu zuen inprimategiarekin eta beste liburu batzuen artean eman zigun Gipuzkoan euskaraz agertu zen lehen liburua, Nicolás de Zubia apaiz durangarrak idatzia: *Doctrina Cristiana en Bascuence*, 1691n. Pedro eta Bernardo Donostiara itzuli zirenean, ama-rengandik at eginda, beren kontura jarri zuten Donostian inprenta. Pedro Huartek inprimatu zuen 1690ean Juan de Luzuriagaren *Paraninfo celeste*, Arantzazuko Ama birjinari buruzkoa. José Ochoa de Arin-en *Doctrina christianaren explicacioa* ere argitaratu zuen 1713an (deitura aldatu zuen, Huarteren ordeztu Ugarte agertzen baita). Bernardo Huartek Tolosan jarri zuen hiri honetako lehen inprenta, eta hemen inprimatu zuen 1697an

Recopilación de los Fueros de Guipuzcoa.

Juan de Luzuriagaren liburua dela eta, esan behar da urte berean egin zuela beste argitalpen bat Madrilen Juan García Infanzón inprimatzaileak, eta lau urte lehenago agertu zela Mexicon lehen edizioa, 1686an B. Calderon alargunaren inprimategian. Beste biek ez duten Ama birjinaren grabatua darama Donostiako argitalpenak. Mexicon gaudenez, gogora dezagun 1607an Henrico Martínez hango inprimatzaileak kaleratu zuela Baltasar Etxaberen *Discursos de la antigüedad de la lengua cántabra bascongada*, eta mendearen azken urtean, 1699an, María Benavides-en inprimategian atera zela *Vida del Apóstol Santiago el Mayor*, José Lezamiz apaiz durangarrak idatzia. Euskal Herritik kanpo mende honetan argitaraturiko historiako liburu baliotsu bat dugu Gabriel Henaorena: *Averiguaciones de las antigüedades de Cantabria*, Salamancan Eugenio Antonio Garcíaek 1689an argitaratua.

XVIII. mendean sartzen garelarik, nabariro ugaltzen dira inprentak eta liburuen inprimaketak Euskal Herrian. Hiriburuetatik aparte, eta XVII. mendean Urantzia, Olite, Azkoién (Peralta), Gares, Tafalla, Tolosa herrietan gertatu zen bezala, beste batzuetan ere agertzen dira inprimategi txikiak, hauen lanak orokorki beharrezkoak izatera iritsi baitira. Inprimakietarako papera lortzea ere gero eta errazagoa gertatzen da, Biarnotik ekartzen zena nahikoa ez zenez, bertan sortu zirelako paper fabrikak. Nafarroako Ospitaleak egiten zuenak filigrana zeraman, hots, lehoia, eta 1799an 6.000 resma atera zituen. Donibane Garazin sortu zen 1782an paper-fabrika, zeinek "000" filigrana

zeraman. Martín Olanok eraikitzen du Gipuzkoako lehen fabrika 1817an. Inprimategien teknikak ere aurreratzen doaz. Dena gertatzen da inprentak ugaltzearen alde. Beraz, XVIII. mende hasieratik inprentaren historia egitea oso zaila da, edo hobe esateko, hitzaldi baten eman ezin daitekeena.

Baina nabarmen diren datu batzuk eman behar ditugu, hala eta guztiz ere. Kaja handiko inprimaketak egiteko gai ziren Euskal Herriko inprimategiak garai honetan. Esate baterako Joseph Moreten neurri handiko *Annales del Reyno de Navarra* Nafarroan inprimatu zen. Lehen tomoa lehen aipatu dugun Martín Gregorio Zabalak inprimatu zuen Iruñean 1684an; bigarren liburukia Bernardo Huartek 1695ean; hirugarrena Neyra eta Ezquerrok 1704an; laugarrena Francisco Picartek, Iruñean zegoelarik, 1709an eta bostgarrena eta azkena Picart berak, baina Bianan, 1715ean. Picart inprimatzaile honek argitaratu zuen Iruñean, 1738an, Francisco Gainzaren liburu eder hau: *Historia de la Universidad de Irun-Iranzu*.

Euskal Herriko bost hiriburuetatik Gasteiz da azkena gure inprentaren historian. Bartolomé Riesgo eta Montero de Espinosa da lehen inprimatzailea, zeinek 1722an inprimatu zuen *Quaderno de Leyes y Ordenanzas de Alava*. Martín Arzadunen euskarazko *Doctrina Christianeen explicacinoa* argitaratu zuen Riesgok 1731an, Araban inprimatu zen lehen euskarazko liburua, beharbada. Riesgoren alaba Tomas Robles, Gasteizko bigarren inprimatzailearekin ezkondu zen, aitagarreba Donostiara joan zenean honen inprentaz arduratu zena. Tomas Roblesek, beste argitalpen askoren artean, eta euskarazko bat aipatzearren, Bartolomé

Olaetxearen bizkaierazko *Doctrina Cristiana* kaleratu zuen 1763an Gasteizen. Bizkaierazko bi dotrinen lehen edizioak, Arzadun eta Olaetxearenak, Gasteizen inprimatu ziren. Bartolomé Riesgok Donostiako inprimategian eman zizkigun, beste askoren artean, Manuel Larramendiren *Diccionario Trilingüe* (1745) eta Cardaverazen *Christau Dotrina* (1760).

Iruñean argitaraturiko dotrinei dagokionetik esan dezagun Francisco Elizalderen *Apenzendako doctrina christiana uscaras*, edizio bakarra eta bakana, Alfonso Burguetek inprimatu zuela 1735ean, eta Juan Irazustaren gipuzkerazko *Doctrina christiana* Joseph Joaquín Martínez-ek 1739an. Baina hogeitaz geroago agertzen zaigu inprimagintza-lanetan Iruñean onenatarikoa izan zen inprimatzailea, Antonio Castilla hain zuzen. Sebastian Mendibururen *Jesusen amore-nequeei dagozten cembait otoitzgai*, hamaika tomotan inprimatu zuen Castillak 1759-1760 bitartean, eta neurri handiagoan hiru tomotan azken aipatu urtean. Baina Agustin Cardaverazen lanak inprimatzen egin zuen lanik oparoena: *Cristauaren bizitza* (1760), *Aita San Ignacioren Ejercicioak* eta *Eusqueraren berri onac* (1761), *Cristau dotrina* eta *Ondo iltcen icasteco* (1762), *Justuen ispillua* eta bizkaierazko *Jesus, Maria eta Joseren debocinoco* (1764) eta azkenik *Senar emazte santuac* (1764).

Baionan argitaratu zuen Roque-maurel inprimatzaileak 1718an *Ejercicio espiritual*, Julien Vinsonen ustez argitalpen gehien izan duen euskarazko liburua. Paul Fauvetek argitaratu zuen bigarren edizioa 1741ean. Martin Maisterren *Jesu-Kristen imitacionia*, zubererako lehena Paben inprimatu zuen Dugué-

-Desbarats bikoteak. Urte batzuk lehenago agertua zen Bordelen Miguel Chourioaren *Jesu-Christoren imitacionea*, 1720an Guillaume Boudek argitaratua. Liburu hau berriz argitaratu zuten Baionan Fauvet eta Dubaratek 1769an.

Bilbon ez zen euskarazko liburu askorik inprimatu, ohiko dotrinak izan ezik. Antonio Zafrak *Bizkaiko Fueroa* argitaratu zuen 1704an eta izen berdineko semeak *Ordenanzas de la Villa de Bilbao* 1711an. Honen alargunak jarraitu zuen inprentarekin, *Ordenanzas de la Universidad y Casa de Contratación de la Villa de Bilbao* 1732an argitaratuz. Egusquiza eta Larumbe izan ziren hurrengo inprimatzaile ospetsuak XVIII eta XIX. mendean. Baina azken honetan Nicolás Delmas eta honen semea, Juan Ernesto Delmas izan ziren inprimatzailerik famatuena. Donostian Ignacio Ramón Baroja, Pío Baroja eta Pío Zuazua aipatu behar ditugu eta Tolosan Francisco de la Lama, Eusebio Lopez eta Mendizabalen familiakoak. Baionan Lamagnière eta gero alarguna izan ziren inprimaketa

gehien egin zituztenak.

Amaitzeko ezin dugu ahaztu Louis-Lucien Bonaparte printzea, zeinek Londresen 123 euskal liburu kaleratu zituen honako inprimategi hauetan: Billing, Barclay, Strangeways and Walden. Liburuetatik aparte kartografiaren eredu ere eman zигun Bonapartek: *Cartes des sept provinces basques* Stanford etxeak inprimatua. Euskal Herrian inprimatutako lehen-dabiziko mapa Tolosan 1821ean eginikoa da. Gero egingo zuen José Joaquín Olazabalek 1830ean *Gipuzkoako mapa*. Bizkaiari buruz egindakoak hiru hauek ditugu: Casimiro Loizaga (1832), Antonio Goikoetxea (1837) eta Timoteo Loizaga (1846), topografikoa azken hau. Arabako mapa topografikoa egin zuen M. Saracibarrek 1848an. Nafarroan, *Carta general de carreteras de Navarra* 1874an prestatu zuten Pedro Ansoleaga eta Antonio Legardek.

Amaitzeko ez dut agurretan denborarik galduko. Entzuleon eroapen eta jasankortasuna eskertzea baizik ez zait geratzen. Mila esker.

Bibliografia

- Altadill, J., (1884): *Estudio bibliográfico. Primera imprenta y catálogo de obras editadas en Pamplona*, Regino Bescanza, Iruñea.
- Allende Salazar, A., (1877): *Biblioteca del Bascófilo*, Madril.
- Allende Salazar, J., (1919): "Notas para la historia de la imprenta en el País Vasco-Navarro", *I Congreso de Estudios Vascos. Oñate. Recopilación de trabajos*, 644-671, Bilbo.
- Amezaga, A., (1983): *Catálogo de Libros religiosos escritos en euskera I*, Parlamento Vasco, Gasteiz.
- , (1984a): *Catálogo de Libros de Historia III*, Parlamento Vasco, Gasteiz.
- , (1984b): *Catálogo de Libros vascos: Fuero Vasco IV*, Parlamento Vasco, Gasteiz.
- , (1985): *Catálogo de Libros de viajeros II*, Parlamento Vasco, Gasteiz.
- Anasagasti, P., (1974): "Exposición tipográfica de Aranzazu", *BRSBAP*, XXX, 470-482.
- Apraiz, E., (1950): "Bibliografía y Medicina. Las primeras imprentas y el cólera en Vitoria", *Vida Vasca*, XXVII, 59-61.

- Arana Martija, J. A., (1979): "Euskara dakarren XVII. mendeko liburu bat Mexican", *Euskera*, 759-765.
- , (1980): "La imprenta de Eloy Carrero en Vitoria", *Norte Expres*, 1980-11-29.
- , (1983-4): "Apuntes para la historia de la imprenta en Gernika", *Aldaba*, I, 21-22, II-III, 21-23, IV, 21-22.
- , (1986): "Betolazaren Doctrina Christiana", *Euskera*, 505-526.
- , (1987a): "Angel Allende Salazar-en *Biblioteca del Bascófilo* katalogoaren mendeurrena", *Euskera*, 399-406.
- , (1987b): "Bibliografía sobre Iparragirre", in *Iparragirre*, Bilbo, Euskaltzaindia, 401-434.
- , (1988): *Catálogo de la exposición de obras referentes al País Vasco editadas en Cataluña*, Biblioteca Nacional de Cataluña, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , (1991a): "Mendiburu eta Bonaparteren mendeurrenetan Juan Mateo Zabala gogoangarri", *Bilduma*, 5. zenb.
- , (1991b): "Bibliografía Bonapartiana", *Euskera*, 127-297.
- , (1992): "Un libro de Himnos de Nebrija impreso en Estella en 1563", *Mínima*, 1, 2-6.
- , (1994): "En el quinto centenario del primer libro de música impreso en Pamplona en 1494", *Mínima*, 4. zenb. [inprimategian].
- Araujo, E. F., (1979): *Primeros impresores e impresos en Nueva España*, Miguel Angel Porrua, Mexiko.
- Areitio Mendiola, D. de, (1946): *Catálogo de la exposición de estampas, grabados y de cien libros raros y curiosos referentes al País Vasco*, Imprenta Provincial, Bilbo.
- , (1954): *Catálogo de la Biblioteca Provincial de Vizcaya. Sección Vascongada*, Imprenta Provincial, 4 tomo, Bilbo.
- Basas, M., (1958): "Cuándo, cómo y por qué vino a Bilbao el impresor Matías Marés", *La Gaceta del Norte*, 4. 23.
- , (1961): "La imprenta en Bilbao. Nuevos datos sobre la edición de las Ordenanzas del Consulado de Bilbao en 1669 y sus impresores", *BRSBAP*, 3-11.
- Batclave, L., (1908): "Documents sur les imprimeurs-libraires de Bayonne", *RLPHC*, XLI, 13-23.
- Bilbao, J., (1974, 1980): *Eusko Bibliographia* [s.v. *Imprenta*, IV. eta IX. tomoak], Auñamendi, San Sebastian.
- Bodoni, G., (1965): *Manuale Tipográfico*, Franco Maria Ricci, Parma [Lehen edizioa, 1818].
- Castro Alava, J. R., (1963): *Autores e impresores tudelanos*, Institución Príncipe de Viana, Iruñea.
- : "La imprenta en Tudela", in *La imprenta en Navarra*, 161-175.
- Claveria, C., (1953): "La imprenta en el País Vasco", *Vida Vasca*, XXX, 154-155.
- Collins, V., (1894): *Attempt at a Catalogue of the Library of the Late Prince Louis-Lucien Bonaparte*, Henry Sotheran, Londres.
- , (1902): *A Catalogue of all the publications of the Late Prince Louis-Lucien Bonaparte*, Charles Lépicé, Paris.
- Congreso de Estudios Vascos. Archivos Bibliotecas y Museos. X. 1987, Iruñea, (1987): *Clásicos griegos, romanos, castellanos e italianos, libros de caballería, crónicas, humanistas navarros en los primeros doscientos años de la imprenta navarra. 1489-1689*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Delaunet, A., (1960): *Catálogo de una biblioteca de genealogía y heráldica*, Gráficas Izarra, Donostia.
- Desgraves, L., (1975): "Les livres imprimés à Bayonne au XVIIIe. siècle (1701-1789)", *BSB*, 161-178.
- , (1979): "Les livres imprimés à Bayonne au XVIIe. siècle", *BSB*, 379-382.

- Domergue, L., (1977): "Apuntes sobre la legislación de imprentas. Fuero de Navarra y centralismo castellano a fines del Antiguo Régimen", *BRAH*, 197-215.
- Donostia, J. A., (1932): *Essai d'une bibliographie musicale basque*, Musée Basque, Baiona.
- Echegaray, C. de, (1917): "¿Qué se leía en Bilbao a fines del siglo XVI?", *La Gaceta del Norte*, Bilbo [eta EEA].
- Exposición tipográfica Vasco-Navarra, (1974): *Catálogo de la Exposición Tipográfica Vasco-Navarra. Aránzazu 17 de Agosto al 30 de Septiembre de 1974*, PP. Franciscanos, Aranzazu.
- Fornet de Asensi, E., (1956): *La imprenta en España*, Publicaciones españolas, Madril.
- Fuente, J. J. de la, (1871): "Apuntes para la historia de la imprenta en Bilbao", in *Memoria del Instituto Vizcaíno*, Juan E. Delmas, Bilbo.
- Galbete, V.: "La invención de la imprenta y su introducción en España", in *La imprenta en Navarra*, 31-40.
- García Larragueta, S.: "La imprenta en los monasterios" in *La imprenta en Navarra*, 177-206.
- García Serrano, R.: "El molino de papel del Hospital General de Pamplona", in *La imprenta en Navarra*, 291-314.
- Garmendia, P., (1946): "Las primeras ediciones de las Ordenanzas Municipales de Bilbao", *El Correo Español*, 1946-11-28.
- Gazteizmendi, (1917): "Tipografía vitoriana. Ediciones en euskera", *Ateneo*, Diciembre, 13-14.
- Gipuzkoako Foru Aldundia, (1991): *Julio de Urquijo fondoaren katalogoa. Catálogo del fondo Julio de Urquijo*, Donostia.
- Godinot, R., (1965): "Contribution à une histoire de l'imprimerie et de la librairie à Bayonne", *BSB*, 119-132.
- Gomez Alonso, F.: "Cuatro imprentas centenarias", in *La imprenta en Navarra*, 249-264.
- : "Imprentas e impresores durante los siglos XVII-XX", in *La imprenta en Navarra*, 224-247.
- Gonzalez Echegaray, C., (1970): *Catálogo de la exposición de libros vascos antiguos y raros*, Biblioteca Provincial, Bilbo.
- Goñi Gaztambide, J.: "La imprenta en Estella en el siglo XVI", in *La imprenta en Navarra*, 125-160.
- , (1948): "El impresor Miguel de Eguia, procesado por la Inquisición", *Hispania Sacra*, 35-54.
- : "Incunables de Pamplona", in *La imprenta en Navarra* 77-112.
- Huarte Jauregi, J. M., (1926): "La imprenta en Guipuzcoa. El primer impresor", *EEA*, XVI.
- , (1927): "El primer impresor de Navarra", *BCMN*, I, 531-555.
- Irigoyen, J., (1948): "El P. Fray Gabriel de Mata y el segundo volumen del Caballero Asisio", *La Gaceta del Norte*, 1948-5-6.
- , (1948): "La impresión del *Caballero Asisio*, de Fray Gabriel de Mata, por Matías Marés, primer impresor de Bilbao", *La Gaceta del Norte*, 1948-4-4.
- Ispizua, S. de, (1923): "La imprenta en San Sebastián. Adición a un artículo del Padre Larrinaga", *EEA*, XIII, 190.
- Jimeno Jurio, J. M.: "La imprenta en Pamplona antes de 1600", in *La imprenta en Navarra*, 41-76.
- : "La imprenta, revolución cultural", in *La imprenta en Navarra*, 1-30.
- Labadie, E., (1913): *L'imprimerie bordelaise et les livres basques*, Pabe.
- Labayen, A. M., (1947): *Escenas papeleras*, Itxaropena, Zarautz.
- , (1953): "El primer libro impreso en Tolosa", *BRSBAP*, 435-443, 557-558.
- Lazkaoko Beneditarrak, (1986): *Euskal liburu zaharren erakusketa*, Lazkao.
- , (1988): *Euskal liburu zaharren erakusketa*, Lazkao.
- Mañaricua, A. E. de, (1954): *Las Ordenanzas de Bilbao de 1593*, Bilbo.

- Marin, L.M., (1977): *Cuatro siglos de imprenta en Tudela*, Tuterá.
- Medina, J.T., (1958): *Historia de la imprenta en los antiguos dominios españoles de América y Oceanía*, Imp. Lit. Universo, Santiago Txilekoa.
- Mosquera Armendariz, J. A., Zubizarreta, C., (1974): *Guión manual de Tipografía Vasco-Navarra*, [1. argitalpena], Imp. Navarro, Iruñea [2. argitalpena: 1977].
- Mosquera Armendariz, J. A., (1974): "Dos incunablistas navarros", *Príncipe de Viana*, 207-217.
- , (1989): *Quinto centenario del primer libro impreso en Pamplona. Compendio de la vida y obra de A. G. de Brocar*, Imp. Navarro, Iruñea.
- Mourlane Michelena, P., (1918): "Carta a don Juan Allende Salazar", *Hermes*, (30 diciembre), 30. zenb.
- , (1927): "Intervención de don Teófilo Guiard", *El Liberal*, 1927-2-17.
- Muestrario de Tipos de Composición Mecánica*, (1965): Ed. Aranzadi, Iruñea.
- Múgica, S., (1934): "La imprenta en Guipuzkoa examinada a través de los libros de registros de Juntas de la Provincia", *RIEV*, XXV, 453-476.
- Odrozola, A., (1934): "Nota bibliográfica sobre los libros impresos en Bilbao por Matías Marés", *RIEV*, 3-51.
- , (1940): "Libros impresos en Estella en el siglo XVI. Doce reproducciones seguidas de breves notas", *Príncipe de Viana*, I, 154-163.
- , (1943): "Obras impresas en Logroño por A. Guillén de Brocar", *Bibliografía Hispánica*, I, 32-37.
- , (1951): "Las primeras ediciones del Quaderno de Leyes de Alava", in *Homenaje a don Julio Urquijo*, III. tomoa, 407-445, Donostia.
- Orpi Prat, N.: "Incunables en la Universidad de Navarra" in *La imprenta en navarra*, 113-123.
- Perez Goyena, A., (1929): "La Teología Dogmática en la imprenta en Navarra", *RIEV*, XX, 306-324.
- , (1947-1964): *Ensayo de bibliografía navarra. Desde la creación de la imprenta en Navarra hasta 1910*, Príncipe de Viana, 9 tomo, Burgos.
- Perez de Guzman, L., (1955): *Noticias poco conocidas sobre la imprenta en Bilbao*, Bilbo.
- Quadra Salcedo, F., (1920): *Libros raros y curiosos de la imprenta de Bilbao*, Bilbo.
- Quinta Feria del Libro de Bilbao, (1972): *La imprenta en Bilbao en el siglo XVI*, La Editorial Vizcaína, Bilbo.
- Rodriguez Herrero, A., (1948): *Ordenanzas de Bilbao, siglos XV y XVI*, Bilbo.
- Ruiz de Larrinaga, J. (1919): "Primicias del arte litográfico en Guipuzcoa. El plano topográfico de la provincia hecho en Tolosa en 1821", *EEA*, IX, 467-471.
- , (1923): "La imprenta en San Sebastián. Primicias bibliográficas. (1672-1700)", *EEA*, XIII, 121-129.
- , (1945): "Más sobre litografías y litógrafos", *BRSBAP*, I, 444-447.
- , (1949): "Curiosidad bibliográfica. Impresos en Vizcaya, Guipuzcoa y Alava hasta el año 1901, al margen de nuestras bibliografías clásicas", in *Homenaje a don Julio de Urquijo*, I tomoa, 49-110. Donostia.
- San Martin, J., (1978): "La imprenta en Eibar", *BRSBAP*, 311-315.
- Sanchez Granjel, L., (1981a): *Imprenta médica vasca*, Universidad, Salamanca.
- , (1981b): *Literatura hidrológico-médica vasca*, Universidad, Salamanca.
- Sedran Aguirregabiria, E., (1922): *Rincones de la historia vitoriana. Implantación de la imprenta en la ciudad de Vitoria*, Imprenta Provincial, Gasteiz.
- Tellechea Idigoras, J. I.: "Documentos sobre Pedro de Borgoña. El primer impresor donostiarra", *Boletín de Estudios Históricos*, 9. zenb., Donostia.
- Ugarte Elorza, F. M., (1989): *Cartografía*, UNED-Kriselu, Bergara.

- Urquijo, J. de, (1922): "Un incunable pamplonés. El Libro de San Buenaventura impreso en 1497 por Brocario", *EEA*, 698.
- Uruñuela Bernedo, J., (1989): *Catálogo de la exposición temática de libros vascos antiguos, raros y curiosos, celebrada en los Salones de la Sociedad Bilbaina, con motivo del CL aniversario de su fundación* [Matias Maresen biografia dakar eta bere inprimakien katalogoa], Sociedad Bilbaína, Bilbo.
- V Centenario de la Imprenta en España: 1474-1974*, (1979): Príncipe de Viana, Iruñea.
- Velasco, E., (1895): "El invento de un bascongado", *EE*, XXXII, 435-439.
- Vindel, F., (1950): *El arte tipográfico en España durante el siglo XV. Valladolid, Toledo, Huete y Pamplona*, Madril.
- Vinson, J., (1983-1984): *Essai d'une bibliographie de la Langue Basque*, Paris, 1891 [Liburu honen bi berrargitalpen egin dira: Bizkaiko Aurrezki Kutxa 1983, eta ASJU 1984].
- Zubizarreta, C.: *Ikus. Mosquera Armendariz, J. A.*
- Zugaza, M., (1989): *Delmas. Bizkaia en el siglo XIX a través de una familia de impresores*, Museo Arqueológico, Bilbo.

